

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

**UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA**

*2022 Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren behin betiko onarpena.*

Urola Kostako Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak, 2022ko maiatzaren 18an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen, besteak beste, 2022ko dirulaguntzen plan estrategikoa onartzea, eta espedientea jendaurrean jarri zen. Aurreikusitako epean ez da errek-lamaziorik edo oharrik aurkeztu, eta, beraz, behin betiko onartu-tzat jotzen da eta osorik argitaratzen da, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoa betetzeko, eta aipatutako Ordenantza indarrean jarriko da, 65.2 artikuluan aurreikusitako epea igaro ondoren.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio-bidean, eta haren aurka administrazioarekiko auzierrekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik bi hilabeteko epean.

Zarautz, 2022ko uztailaren 14a.—*Lourdes Salsamendi Goñi,*  
lehendakaria. (4754)

*Diru-laguntzen Plan Estrategikoa 2022*

HITZAURREA

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikulua ezartzen duenez, administrazio publikoetako organoek edo diru-laguntzak ezartzea proposatzen duten edozein erakundek, aldeaz aurretik, diru-laguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dute zer helburu eta ondorio lortu nahi diren hura aplikatzean, horiek lortzeko behar izango duten epea, aurreikusitako kostuak eta horien finantziazio-iturriak; betiere, aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzearen mende.

Aipatutako legearen printzipio objektiboetako bat gardentasuna da. Gardentasun horrek, Legeak araututako tresnekin batera, eragin zuzena izango du diru-laguntzen gastu publikoaren kudeaketan eraginkortasun- eta efizientzia-mailak handitzean.

Lege horren azken xedapenetako lehenengoak ezartzen du artikulua hori oinarritzat dela, eta herri-administrazio guztiei aplikatuko zaiela.

Bestalde, lege horren hamahirugarren xedapen gehigarriak adierazten du erregelamenduzko lege-arauetan aurreikusitako herri politikei buruzko Planak eta Egitarauak diru-laguntzen plan estrategikotzat hartuko direla.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren hamazazpigarren xedapen gehigarriaren arabera, kontu-hartzailetzari dagokio plan estrategikoen aplikaziotik eratorritako emaitzak kontrolatzea eta ebaluatzea.

Azkenik, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren III. kapituluko 1. atalak 10. artikuluan eta hurrengoetan arautzen ditu plan estrategikoen printzipio gidariak, eremua, edukia, onartzeko eskumena eta jarraipena, bai eta horiek ez betetzearen ondorioak ere.

**MANCOMUNIDAD UROLA KOSTA**

*Aprobación definitiva del Plan Estratégico de Subvenciones 2022.*

La Comisión Ejecutiva de la Mancomunidad Urola Kosta, en sesión ordinaria celebrada con fecha 18 de mayo de 2022, adoptó, entre otros, el acuerdo de aprobar el Plan Estratégico de subvenciones de la Mancomunidad para el ejercicio 2022. Habiéndose sometido el expediente a información pública no se ha presentado reclamación u observación alguna a la misma, por lo que se entiende aprobada definitivamente y se publica íntegramente a efectos de dar cumplimiento a lo preceptuado en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril Reguladora de las Bases de Régimen Local, entrando en vigor la mencionada Ordenanza, una vez transcurrido el plazo previsto en el artículo 65.2.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente hábil a la publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Zarautz, a 14 de julio de 2022.—*La presidenta, Lourdes Salsamendi Goñi.* (4754)

*Plan Estratégico de Subvenciones 2022*

PREÁMBULO

El artículo 8.1 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones establece que los órganos de las Administraciones públicas o cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo, deberán concretar en un plan estratégico de subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.

Uno de los principios objetivos de la mencionada ley es la transparencia que, junto a los diversos instrumentos regulados por la Ley, tendrá una incidencia directa en un incremento de los niveles de eficacia y eficiencia en la gestión del gasto público subvencional.

La Disposición Final Primera de dicha ley establece que el referido artículo tiene carácter básico, resultando de aplicación a todas las Administraciones Públicas.

Por otro lado, la disposición adicional decimotercera de dicha Ley, establece que los Planes y Programas relativos a políticas públicas previstas en normas legales reglamentarias tendrán la consideración de planes estratégicos de subvenciones.

La disposición adicional decimoséptima de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones señala que corresponde a la intervención el control y evaluación de los resultados derivados de la aplicación de los planes estratégicos.

Por último, la sección 1 del capítulo III del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio regula en los artículos 10 y siguientes los principios directores, ámbito, contenido, competencia de aprobación y seguimiento de los planes estratégicos, así como los efectos de su incumplimiento.

Eraginkortasuna hobetzeko, legerian aurreikusten da diru-laguntzen plan estrategikoa bat egitea, hainbat urtetarako eta diru-laguntzak sortu aurretik.

Legezko eta arauzko agindu hori betetzeko, Urola Kostako Udal Elkarteak diru-laguntzen plan estrategikoa onartu du. Hona hemen plan horren artikulua:

## I. KAPITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. artikulua.

Urola Kostako Udal Elkarteak 2022. urtean emango dituen diru-laguntzak bat etorriko dira diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrekin, haren araudiarekin, plan honekin eta diru-laguntzen urteko deialdien oinarriekin.

#### 2. artikulua.

Diru-laguntzak emateko beharrezkoa izango da alde aurretik urte bakoitzeko aurrekontuetan diru-esleipenak sartuta egotea eta dagokion deialdia eta emakidaren oinarri arautzaileak onartzea.

#### 3. artikulua.

Diru-laguntzak emateko beharrezkoa izango da aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzea. Hortaz, onartzen diren aurrekontu-esleipenak eta emakidaren oinarri arautzaileak helburu horietara egokituko dira une oro.

#### 4. artikulua.

Diru-laguntzen plan estrategikoa hau onartzeak ez du esan nahi eskubideren bat sortzen dela balizko onuradunen alde; eta, beraz, horiek ezingo dute eskatu kalte-ordainik edo konpentsaziorik, baldin eta Udalak Plana bere horretan praktikan jarzen ez badu.

#### 5. artikulua.

Plan honen printzipio orokorrak honako hauek dira:

\* Publizitatea eta lehia askea, aurrez egindako deialdiaren bidez. Deialdian bermatuta egongo dira objektibitatea, gardentasuna, publikitatea, lehia eta berdintasuna (fondo publikoen banaketan); eta hori guztia, emakida zuzena egiteko aukerari utzi gabe. Emakida zuzena, araudi aplikagarrian jarritakoaren arabera, alde aurretik dagokion aurrekontu-esleipena eduki beharko du.

\* Deialdian aurrez jarritako irizpide objektiboen arabera egingo da emakida, horrela bermatzen baita balizko onuradunek irizpide horiek aurrez ezagutzen dituztela.

\* Eraginkortasuna, jarritako helburuak betetzerakoan; eta efizientzia, baliabide publikoak esleitzerakoan. Hortaz, kantitatearen eta kalitatearen aldetik justifikatu beharko da.

\* Kontrolatzea eta aztertzea diru-laguntza eskatzen duten erakundeen helburuak bat datozela berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioekin, diruz lagundutako jardueretan.

\* Eta, berariaz, une oro egiaztatzea Plan Estrategikoaren egokitasuna. Hau da:

- Plana ikuspegi sozialetik justifikatzea.
- Planak kontuan hartzen dituen herritarren beharrak.
- Gaitasun finantzarioa.
- Erakundeak arlo horretan duen eskumena azaltzea.

#### 6. artikulua.

Aurrekontu zuzkidura egokia eta nahikoa egotearen mende daude diru laguntzen programak.

Para mejorar la eficacia, se prevé en la Legislación que se proceda a elaborar un Plan Estratégico de Subvenciones, de carácter plurianual y con carácter previo al nacimiento de las subvenciones.

Al objeto de cumplir con este mandato legal y reglamentario la Mancomunidad Urola Kosta aprueba el plan estratégico de subvenciones cuyos artículos figuran a continuación:

## CAPÍTULO I

### DISPOSICIONES GENERALES

#### Artículo 1.

La concesión de subvenciones por la Mancomunidad Urola Kosta durante el periodo 2022-2023, se ajustará a la Ley General de Subvenciones, a su reglamento, al presente plan y a las bases de las convocatorias anuales de subvenciones.

#### Artículo 2.

La concesión de subvenciones requerirá la inclusión previa de las consignaciones correspondientes en el presupuesto de cada año y la aprobación de las convocatorias que contengan las bases reguladoras de su concesión.

#### Artículo 3.

La concesión de subvenciones queda supeditada al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria, por lo que las consignaciones presupuestarias que se aprueben y las bases reguladoras de su concesión se acomodarán en cada momento a dichos objetivos.

#### Artículo 4.

La aprobación del presente plan estratégico de subvenciones no supone la generación de derecho alguno a favor de los potenciales beneficiarios que no podrán exigir indemnización o compensación alguna en caso de que el plan no se lleve a la práctica en sus propios términos.

#### Artículo 5.

Son principios generales de este Plan los siguientes:

\* Publicidad y libre concurrencia mediante convocatoria previa en la que se garantice la objetividad, transparencia, publicidad, concurrencia e igualdad en la distribución de fondos públicos, ello sin perjuicio de la posible concesión directa que, de conformidad con lo establecido en la norma aplicable, deberá contar con la debida consignación presupuestaria previa.

\* Concesión conforme a criterios objetivos previamente establecidos en la convocatoria a fin de garantizar el conocimiento previo de los mismos por los potenciales beneficiarios.

\* Eficacia en el cumplimiento de los objetivos marcados y eficiencia en la asignación de recursos públicos, debiéndose justificar cuantitativa y cualitativamente.

\* Control y análisis de la adecuación de los fines de las entidades solicitantes a los principios de igualdad y no discriminación en el ejercicio de las actividades subvencionadas.

\* Y de forma específica, verificar de forma constante la pertinencia del Plan Estratégico. A saber:

- Justificación del Plan en términos sociales.
- Necesidades de la ciudadanía a las que atiende.
- Capacidad financiera.
- Explicación de la competencia de la entidad en la materia.

#### Artículo 6.

Los programas de subvenciones quedarán condicionados a la existencia de dotación presupuestaria adecuada y suficiente.

Diru-laguntzak eman edo emakida zuzenak egin aurretik, gastua onartu beharko da, Urola Kostako Udal Elkarteko aurrekontu-arauetan aurreikusitako moduan.

Diru-laguntzak eman aurretik, emakidaren arauak edo oinarri arautzaileak onartu beharko dira.

#### 7. artikulua.

Lehendakariak izango du laguntzak edo diru-laguntzak emateko eskumena. Bere eginkizuna diru-laguntzen kudeaketa ekonomikoa egitea izango da, eta, beraz, Diru-laguntzen Plan Estrategikoa betearaztea.

## II. KAPITULUA

### PLANAREN EDUKIA

#### 8. artikulua.

Ordenantza arautzailean aurreikusitakoaren arabera, Plan honetan 2022ko ekitaldirako aurreikusitako diru-laguntzak eta laguntzak eranskin bakoitzean zerrendatzen dira, honako irizpide hauen arabera:

- Programaren deskribapena.
- Xedea. Diru-laguntzaren helburua zehazten da, betetzen ote den ebaluatzeko.
- Kudeaketa-modua. Diru-laguntza emateko aplikatu beharreko prozedura planteatzen da, ezarritako printzipio orokorrek eta baldintzekin bat etorritz (lehia askea, zuzeneko emakida, hitzarmena, etab.).
- Zenbatekoa. Diru-laguntza bakoitzerako aurreikusitako diru-izendapena.
- Finantziazioa.
- Aurrekontu partida.

#### 9. artikulua.

Erakunde osatzen duten udalerriek finantzaturako funtsein finantzaturako da, aurrekontuaren laugarren kapituluaren kontura. Hala ere, diru-laguntza eskatu ahal izango zaie beste erakunde batzuei, diru-laguntza ildo horrek lotutako jarduerak garatzeko argitaratzen dituzten diru-laguntzen deialdien barruan.

## III. KAPITULUA

### DIRU LAGUNTZEN ONURADUNAK ETA GAIAK

#### 10. artikulua.

Urola Kostako Udal Elkarteak pertsona, enpresa, elkarte edo erakunde publiko eta/edo pribatuentzako diru-laguntzak emango ditu, ekintzaitza edo/eta enpresa-lehiakortasuna sustatzeko edo erakundeari esleitutako helburu publikoak lortzea sustatzeko.

#### 11. artikulua.

Urola Kostako Udal Elkarteak diru-laguntzak ezarriko ditu urtero, hainbat diru laguntza-lerroren bidez, honako eskumen-arlo hauetan: enplegua; pertsonen kontratazioa; enpresen sorrera eta barne-ekintzaitza eta/edo enpresa-lehiakortasuna.

Con carácter previo al otorgamiento de las subvenciones o concesiones directas (convenios) deberá efectuarse la aprobación del gasto en términos previstos en las normas presupuestarias de la Mancomunidad Urola Kosta.

De forma previa al otorgamiento de las subvenciones, deberán aprobarse las normas o bases reguladoras de la concesión.

#### Artículo 7.

El órgano competente para conceder las ayudas o subvenciones será la presidencia. Su función será la de realizar la gestión económica de las subvenciones y, por lo tanto, la ejecución del Plan Estratégico de Subvenciones.

## CAPÍTULO II

### CONTENIDO DEL PLAN

#### Artículo 8.

De conformidad con lo previsto en la Ordenanza reguladora, la concesión de las subvenciones y ayudas contempladas en este Plan para el ejercicio 2022 aparecen relacionadas en cada anexo en función de los siguientes criterios:

- Descripción del programa.
- Objeto. Se especifica la finalidad para la que se destina la subvención, a fin de evaluar su cumplimiento.
- Modalidad de gestión. Se plantea el procedimiento a aplicar para la concesión de la subvención, en consonancia con los principios generales y las condiciones establecidas (libre concurrencia; concesión directa; convenio, ...).
- Importe. Consignación prevista para cada subvención.
- Financiación.
- Partida presupuestaria.

#### Artículo 9.

La financiación se llevará a cabo con fondos financiados por los municipios que integran la entidad y con cargo al capítulo cuatro del presupuesto, si bien se podrá solicitar ayuda económica a otras instituciones dentro de las diferentes convocatorias de subvenciones que publican para el desarrollo de actividades relacionadas con esta línea de subvención.

## CAPÍTULO III

### BENEFICIARIOS Y MATERIAS DE LAS SUBVENCIONES

#### Artículo 10.

La Mancomunidad Urola Kosta concederá subvenciones a favor de personas, empresas, asociaciones o entidades públicas y/o privadas con la finalidad de fomentar el emprendimiento y/o la competitividad empresarial o para promover la consecución de fines públicos atribuidos a la entidad.

#### Artículo 11.

La Mancomunidad Urola Kosta establecerá anualmente subvenciones, a través de diferentes líneas de subvención, en las siguientes áreas competenciales: empleo; contratación de personas; creación de empresas e intra-empresarial y/o; competitividad empresarial.

IV. KAPITULUA

DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN ERAGINKORTASUNAREN  
EBALUAKETA. EMAITZEN AZTERKETA

12. artikulua.

Diru-laguntza bakoitzaren eraginkortasuna hobeto aztertze-ko, diru-laguntzak ematen dituzten departamentuek txosten ar-zaioitu bat eskatuko diete onuradunei. Txostenean honako hauek jasoko dira: batetik, zein ekintza zehatz egin diren, eta diruz la-gundutako ekintzak zenbat herritarri eragin dien, eta bestetik, lortutako helburuak justifikatuko dira.

Zehazki, informazio hau jasoko da:

- Laguntzaren helburua.
- Erakunde onuraduna eta, hala badagokio, erakunde lagun-tzailea.
- Diru-laguntzaren zenbatekoa.
- Emandako diru-laguntzaren bidez garatutako ekintza zeha-tzak.
- Diruz lagundutako ekintzak zenbat herritarrengan izan duen eragina.
- Diruz lagundutako ekintzen edo programen diru-sarrereren eta gastuen xehetasuna, frogagiri edo faktura eta guzti.
- Lortu nahi ziren helburuak eskuratzeko garatutako ekin-tzen egokitasunaren eta asebetetze-mailaren balorazioa. Baloratu egingo da, baita, egokia ote den programa jarraitzea edo, bestela, aldatzea edo kentzea.

13. artikulua.

Lehendakaritzak kontrolatuko du plan hau betetzen dela, in-darrean dagoen bitartean.

Planaren indarraldia amaituta, eta hurrengoa egin aurretik, erakundeko lehendakariak memoria bat aurkeztu beharko dio gobernu-organoari. Memorian honakoak jaso beharko dira gu-txienez, planaren betetze-maila; lortu nahi diren helburuak eta ondorioak lortzeko diru-laguntzak ematearen eraginkortasuna eta efizientzia eta; diru-laguntzen hurrengo plan estrategikoa egiteko iradokizunak.

Udal kontu-hartzaileak kontrolatu eta ebaluatuko ditu Plan Estrategikoaren aplikazioaren ondorioz lortutako emaitzak.

Aurrekoari utzi gabe, diru-laguntzen tramitazioaz arduratzen diren unitate administratiboetako arduradunek espedientean jasota utziko dute, txosten idatzi egiaztatu baten bidez, garapen edo tramite fase guztietan bete direla udal akordioak hartzeko legez eskatzen diren betebeharrak (eskabideak onartzea, horiek baloratzea, emakidaren proposamena egitea, eta laguntzen bukaerako justifikazioa eta likidazioa).

CAPÍTULO IV

EVALUACIÓN DE LA EFICACIA DE LOS PROGRAMAS  
SUBVENCIONADOS. ANÁLISIS DE RESULTADOS

Artículo 12.

Para un adecuado análisis del grado de eficacia de cada subvención, el órgano directivo de la Mancomunidad Urola Kos-ta solicitará a los gestores de la ayuda concedida, un informe en el que figuren de forma motivada, por un lado, las acciones con-cretas desarrolladas y el número de ciudadanos/as y/o entida-des a los que ha alcanzado la acción subvencionada, y por otra, la justificación del logro de los objetivos perseguidos.

En concreto, en dicho informe se deberá detallar la siguien-te información:

- Objeto de la ayuda.
- La entidad beneficiaria y, en su caso, la entidad colabora-dora.
- Importe de la subvención.
- Acciones concretas desarrolladas a través de la subven-ción otorgada.
- Número de ciudadanos/as a los que ha alcanzado la ac-ción subvencionada.
- Detalle de los ingresos y gastos con su respectiva justifi-cación o factura de las acciones o programas subvencionados.
- Valoración en cuanto a adecuación y grado de satisfacción de las acciones desarrolladas cara al logro de los objetivos per-seguidos, y sobre la procedencia del mantenimiento o, en su caso, modificación o supresión del programa del que trae causa.

Artículo 13.

La Presidencia de la Mancomunidad Urola Kosta comproba-rá que este Plan se cumple durante su vigencia.

Finalizada la vigencia del Plan, y antes de la elaboración del siguiente, la presidenta de la entidad deberá presentar ante el órgano de gobierno una memoria en la que se contemple, al menos, el grado de cumplimiento del Plan, la eficacia y eficien-cia del otorgamiento de subvenciones en la consecución de los objetivos y efectos pretendidos y conclusiones, con propuesta de sugerencias para la elaboración del siguiente Plan Estraté-gico de Subvenciones.

El control y la evaluación de los resultados obtenidos como consecuencia de la aplicación del citado Plan estratégico será realizado por la secretaria-interventora de la entidad.

Sin perjuicio de lo anterior, por parte de los responsables de las diferentes unidades administrativas encargadas de la trami-tación de las subvenciones, se dejará en el expediente debida constancia, mediante informe escrito acreditativo, del cumpli-miento de los requisitos legalmente exigibles para la adopción de los necesarios acuerdos, en sus diferentes fases de desarro-llo o trámite (admisión de solicitudes, valoración de las mismas, elaboración de propuesta de concesión y justificación y liquida-ción final de las ayudas).

I ERANSKINA

DIRU LAGUNTZA EMATEN DUEN SAILA: GARAPEN AGENTZIA

Programaren azalpena eta partida	Helburua	Nori zuzendua	Emakida mota	Aurreikusitako urteko kostua	Epea	Finantzaketa
UKUE DIRU LAGUNTZAK 2022 1 03.471.01.433.00 2022	Eskualdeko ekonomia; enplegu sorrera eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko diru laguntzak ematea.	Laguntza hauek Udal Elkarte osatzen duten udalerrietako, hau da, Aia, Getaria, Orío, Zarautz eta Zumaiako pertsona, enpresa edo eta ekintzailentzat dira.	Lehia askea	181.600,37 €	2022	Propioa

Programaren azalpena eta partida	Helburua	Nori zuzendua	Emakida mota	Aurreikusitako urteko kostua	Epea	Finantzaketa
ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZAK 2022 1 03.471.01.433.00 2022	Laguntza ekonomikoak ematea enpresei, Lanbide-Euskal Enplegu zerbitzuan langabeen eta enplegu eskatzaile gisa izena emanda dauden eskualdeko pertsona langabeak kontratatzeke.	Lantokia eta jarduera ekonomikoa Urola Kostako Udal Elkartearen lurralde esparruan (Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaia) duten izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridikoei zuzendutako diru laguntzak.	Lehia askea	280.000,00 €	2022	Lanbide

II ERANSKINA  
DIRULAGUNTZA EMATEN DUEN SAILA: EUSKARA ETA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK

Programaren azalpena eta partida	Helburua	Nori zuzendua	Emakida mota	Aurreikusitako urteko kostua	Epea	Finantzaketa
Euskaraldia_3. edizioa 1 05.481.01.335.00 2022	Xedea da Topagunearen eta Udal Elkartearen arteko lankidetzaren finkatzea; 2022an Udal Elkartearen eremuan (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia) Euskaraldiaren 3. edizioa dinamizatzea eta tokiko proiektua gauzatzea; hots, hiztunak aktibatu eta euskararen normalizazioan urrats esanguratsuak egitea.	TOPAGUNEA EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA (EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA. IFK: V48886725)	Zuzeneko dirulaguntza izenduna	65.611,10 €	2022	Propioa

ANEXO I  
DEPARTAMENTO QUE CONCEDE LA SUBVENCIÓN: AGENCIA DE DESARROLLO

Descripción del programa	Objetivo	Perceptor/a	Tipo de concesión	Coste anual previsto	Plazo	Financiación
AYUDAS UKUE 2022 1 03.471.01.433.00 2022	Conceder subvenciones para la mejora de la economía de la comarca, la creación de empleo y la competitividad empresarial.	Ayudas dirigidas a personas, empresas o personas emprendedoras de los municipios que conforman la Mancomunidad (Aia, Getaria, Orio, Zarautz y Zumaia).	Concurrencia competitiva	181.600,37 €	2022	Propia
ACCIONES LOCALES DE PROMOCIÓN DE EMPLEO 2022 1 03.471.01.433.00 2022	Conceder ayudas económicas a empresas para la contratación de personas desempleadas de la comarca inscritas como demandantes de empleo en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo.	Ayudas dirigidas a personas físicas o jurídicas, de naturaleza privada, con centro de trabajo y actividad económica en el ámbito territorial de la Mancomunidad Urola Kosta (Aia, Getaria, Orio, Zarautz o Zumaia).	Concurrencia competitiva	280.000,00 €	2022	Lanbide

ANEXO II  
DEPARTAMENTO QUE CONCEDE LA SUBVENCIÓN: SERVICIOS DE EUSKERA Y COMUNICACIÓN

Descripción del programa	Objetivo	Perceptor/a	Tipo de concesión	Coste anual previsto	Plazo	Financiación
3.ª edición de Euskaraldia 1 05.481.01.335.00 2022	El objetivo es consolidar la colaboración entre el Topagune y la Mancomunidad; dinamizar en 2022 la 3.ª edición de Euskaraldia en los cinco municipios de la comarca (Aia, Getaria, Orio, Zarautz y Zumaia) y llevar a cabo el proyecto local; es decir, activar a los vascohablantes y dar pasos significativos en la normalización del euskera.	TOPAGUNEA EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA (EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA. CIF: V48886725)	Concurrencia no competitiva; subvención nominativa	65.611,10 €	2022	Propia